


Otsaila, otsoaren hilabetea ote?

Migel Mari Eloseggi*



FITXA TEKNIKOA

Otsoa

Espezia:	<i>Canis lupus</i>
Familia:	kanidoak
Ordena:	haragijaleak
Klasea:	ugaztunak

Gau ilun hartan artzainak ainuri ozen hunkigarriak entzun zituen amets gaiztoetan. Gero, ordea, artaldea asalaturik somatu eta zakurrak buztan-makur eta isil-isilik ikusi zituenean, esna zegoela ohartu zen. Bat-batean, iskanbila haren erdian zebilen itzala argitu, begi gorri haiek ikusi eta bihotzak danbateko latz hura eman zionean, zalantza izpirik ere ez zuen izan: otsoa Aralarerraino, Euskal Herriaren bihotzeraino, itzulia zen.

Historia, ipuin, kondaira, toponimoetan eta, oro har, gure kulturaren, otsoa lehen mailako protagonista dugu. "Otsaila" hitza bera ere, honen adibidetzat har genezake, zenbaitentzat otsoaren hilabetea adierazten baitu. Iaz ordea, otsaila baino maiatza izan zen ugaztun harrapari bikain hau euskaldunon ahotan ibili zen hilabetea. Izan ere, urte askoren ondoren, berriro ere gure hurbileko lurraldeetan agertu zen.


Iberiar Penintsulako otsoa (*Canis lupus signatus*) ugaztun indartsu eta dotorea da. Artzain-zakur aleman handi baten antza du, baina masaila muskulutsuagoa izatearen ondorioz, buruzabalagoa da. Lepoa, halaber, galanta du eta are gehiago neguan, iletza gozoz jantzita duenean. Begirada sarkorra du, urre koloreko begiak eta ikusmen zorrotza; mutur luzea eta usaimen

bikaina; belarriak, berriz, motz samarrak, triangeluarrak, eta entzumen ere, hagitz ona. Zentzumen ezinobeak, beraz, ehiztari paregabe honentzat. Bestalde, hanka luze eta sendoak ditu, ibilaldi luzeak jasateko aproposak. Izan ere, otsoa iraupen-lasterkaria da eta lasterraldi luzeak egin ditzake ehizakien atzetik, leher eginda utzi eta ondoren hiltzeko. 120 cm inguruko soina du, buztanari dagozkion 40 cm-ak kontuan hartu gabe. Pisua 30 kg ingurukoa da emeen kasuan eta 35-ekoa arretan. Latitude hauean otso handiagoak nekez topatzen badira ere, Europako iparraldean, 70 kilogramo inguruko aleak ez omen dira arraroak. Kolore aldetik, aldakorra den arren, argrisaska izaten da normalean.


Harrapari azkarra eta egoera desberdinetara ederki egokitzeko gai denez, habitat askotan aurkitzen da. Garai batean, Europa osoko lurretan agertzen zen, baina giza presioaren ondorioz, mendi aldera baztertu zen. Gaur egun, lautada eta nekazaritza-lurretan, baso eta mendietatik urrun samar, bizi diren otsoak badaude, baina gehienbat leku basatiagoetan irau du. Jendearengandik urrun mantentzen saiatzen da eta gautarra da batik bat.

Kaleko edozeinek otsoak ardiak ez dituela uste badu ere, dieta oso

Iberiar Penintsulan 1.500-2.000 otso daude (Europako mendebaldeko populazioaren % 80) eta Euskal Herrian, Burgosko iparraldean eta Kantabriako ekialdean 15-25 inguru daudela estimatu da.



M.M. Eloseggi



M.M. Elosegi



Otsoa, ugaztun haragijale indartsu eta dotorea da.

zabala eta aldakorra du. Bizilekua-
ren arabera, baina beti haragietan
oinarrিতuta, elikadura arras ezber-
dina izan dezake. Hala ere, hauxe
izan daiteke, ehunekotan adierazi-
ta, haragijale honen dieta tipikoa:
basa-azienda handiak % 35, etxeko
aziendak % 25, erbi eta untxiak
% 14, karraskariak % 9, sarraskiak
% 7 eta narrasti, hegazti, fruitu eta
bestelakoak % 5. Normalean, gaixo
dauden abereak, zaharrak, gazte-
txoak eta, oro har, ahulenak auke-
ratzen dituzenez, animalia basatien
populazioaren osasun-egoeraren
erregulatzaile fina dugu. Zoritxa-
rrez, ordea, biderik errazena hartu
eta askotan etxeko abereak eraso-
tzen ditu, batez ere hauek zaintzen
inor ageri ez denean; ez da arraroa
gainera, jan ditzakeenak baino abe-
re gehiago hiltzea sarraski handiak
sortuz. Hauxe da, hain zuzen ere,
animalia honek sortzen dituen ar-
azo eta buruhausteen gakoa: jen-
dearentzat arriskutsua ez bada ere
abereentzat bai.

Bizimoduari dagokionez, otsoak
ederki antolatutako talde hierarki-
koetan elkartzen dira eta euren
artean harreman sozial estuak di-
tuzte, ehiztari-talde apartak osa-
tuz. Otso bakar batek, esate bate-
rako, nekez hil dezake orein handi
bat, baina taldean elkarturik ederki
menpera dezakete.

Emeen estalketa abendua-martxoa
aldera egiten da. Handik 9-10 aste-
etara, zulo lasairen batean emea 3-
-6 kumez erditzen da. 10 egunen
buruan kumeek begiak irekitzen
dituzte eta, amaren errapetik
hasieran eta gurasoek ekarritako

haragia janez ondoren, azkar haz-
ten dira. 2-3 hilabeterekin guraso-
ekin ehizean ikasten hasten dira
eta beste 3-4 hilabeteren buruan
gurasoengandik banatzen dira. 2
urte beteta heldutasun sexualera
iristen dira eta 12 urte inguru bizi-
tzera hel daitezke. Otso eta txaku-
rraren arteko hibridazioak askotan
entzun izan badugu ere, arraroa
dela esan behar da. Oso gutxitan
nahasten dira eta elkarri dioten
amorrua lagun, txakurra otsoaren
elikagai kuttunetakoa da.

Europar otsoa Italian, Iberiar Pe-
nintsulan, Balkanetan eta Europako
Ipar eta Ekialdean bizi da gaur
egun. Iberiar Penintsulan 1.500-
-2.000 otso inguru daude eta

na berriztatu egin delako eta,
ondorioz, unglatu basatien kopu-
ruak (orein, orkatz, basurdeak...)
gora egin duelako eta, bestetik,
pozoi eta tranpak debekatu egin
direlako. Euskal Herrian eta ingu-
ruetan (Burgos eta Kantabriako
ekialdean), 15-25 otso inguru da-
biltzala estimatu da eta adituen iri-
tziz, Pirinio aldera mendebalde eta
iparraldetik (Frantziatik) iritsi eta
bertan egokituko dira otsoak dato-
zen urteetan. Orain arte, ordea,
gure lurraldera sartu diren aleen
kontrako uxaldiak egin dira, 1987-
-1994 bitartean 20 otso hilez. Bai-
na... etorkizunean ere horrela izan-
go al da? Ba ote du arazo honek
konponbiderik edota Euskal He-

M.M. Elosegi



Azken urteotan Euskal Herrian, batez ere Karrantza, Artzentales, Salbada, Gibijo eta Valdegovia inguruetan agertu dira otsoak.

Penintsulako iparraldean egoera
onean badaude ere, hegoaldeko
populazioak, Extremadura eta
Andaluziakoak, alegia, iraungipen-
-arrisku larrian daude. Euskal He-
rriko egoerari dagokionez, 1996ko
maiatzean azaldutako ale ospetsu
haiek inguru hauetatik alde egin
bazuten ere, badira 10-15 urte
Araba eta Bizkaiko mendebaldean
otsoa sartzen hasi eta bertan ego-
kitu zela. Zabalkuntza hau ulerga-
rria da; batetik, nekazaritza-es-
kualdeak hustearekin batera oiha-

rrian ez dago animalia honentzat
lekurik XXI. mendearen atarian?
Aralarren eta, oro har, Gipuzkoa
eta Bizkaia bezalako lurralde popu-
latuetan egia esan, ia ezinezkoa da
otsoa eta artzantza bateragarriak
egitea, baina... posible ote da gure
herriko lurralde basatienetan ani-
malia hauek bizitzea? Espero deza-
gun baietz. Dena den, hurrengo
alean gai eztabaidatsu honetan
sakontzen saiatuko gara.



* Biologoa